

Gerrari ez, ez Ukrainan ez inon!

Elgetarrok, badakigu zerbait gerraren eta beronen ondorio lazgarrien inguruan. Batzuk, lehen pertsonan bizi izan zutelako. Beste batzuk, harrezkero, gure herriaren memoria historikoa berreskuratzeko egin den lanari esker. Gerra iluntasuna da, beldurra da, sarraskia.

Otsailaren 24an agindu zuen Errusiar Gobernuak Ukrainaren kontrako inbasioa, gatazka egoera leherraraziz. Harrezkero, hainbat izan dira tropen erasoak eta sarraskia jasan dituzten herri, hiri eta herritarrak, egoera dramatikoak eta drama humanoa sorraraziz.

Gure herriak, zoritxarrez, ondo daki gerrak zein gerraosteak uzten dituen ondorioen inguruan: hildakoak, lapurretak, zaurituak, bortxatuak, ondasunen suntsitzea, ekonomiaren deuseztatzea...

Arazoei beste irtenbide bat eman behar zaie, biolentzia edota ekinbide militarra ez da bidea. Arazoak elkarriketaren bidez konpontzeko eskatzen dugu, bide diplomatikoak dira bultzatu behar direnak, horretarako dauden bitarteko guztiak erabiliz.

Gerra honen nondik norakoak egunero iristen bazaizkigu ere, zoritxarrez, ez da munduan indarrean dagoen gerra bakarra. Palestina, Yemen, Afganistan, Sahara, Somalia, Kurdistan, Siria... gerran daude. Herri asko daude gerra egoeran, herritar gehiegi daude gerren ondorioak jasaten. Gerrari ez! Diogu ozen. Ez Ukrainan, ez inon!

Baina, gauden lekutik, Elgetatik, egoera lazgarri honen aurrean zaugarrienak diren herritarrei nola lagundu pentsatzea dagokigu, ditugun baliabideak beraien esku utziz.

Horregatik:

1. Elgetako Udalak elkartasuna adierazten die gaur egun, gerraren biktima diren nazio, herri zein herritarrei.
2. Elgetako udalak, Ukrainaren subirautzaren aurkako gerra ekintzak gaitzesten ditu.
3. Udal honek Errusiari inbasio militarra berehala eteteko eta tropak Errusiara itzultzeko eskatzen dio.
4. Elgetako Udalak, nazioen arteko ezberdintasunak modu diplomatikoan konpontzeko deia egiten du.
5. Elgetako Udalak, Polonian preso dagoen Pablo Gonzalez kazetariaren berehalako askatasuna eskatzen du.
6. Elgetako Udalak, bere jabegokoa den Mendizaleen plazako etxea errrefuxiatuek erabiltzeko aukeran jartzea erabakitzen du, horretarako beharrezkoak diren kudeaketak eginez.